

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua aurrera eramateko, guk egingo eta beteko ditugun funtzioak zehazteko balio du atal honek, hau da, kanpoko enpresa eta enpresabururik gabe gure gimnasioan funtsezkoak diren jarduerak zehazteko.

Taldeko kide bakoitzak gimnasioaren jarduera desberdin batean lan egingo du, bere abileziak kontuan hartuta.



Gure gimnasioaren publizitatea eta diseinua eramango duena Lina izango da. Txikia zenetik darama marrazten eta etorkizunean mundu honi buruz zerikusia duen adar batean lan egin nahi du, eta sormen handia du. Beste alde batetik, sare sozialak eguneratuta eramango ditu, oso garrantzitsua iruditzen zaigulako kontu erakargarri bat edukitzea, horrela, jende gehiago anima dadin.



Bezeroekin hasieran harremanetan jarriko dena Mirene izango da. Jendea ezagutzeko eta erakartzeko abilezia du eta hasieran hori da behar dena, bezero berriak beregana ditzagun. Bertan zalantzak argituko ditu, telefonoaz arduratuko da...

Diruari dagokionez, kontuak eramango dituen Nagore da. Berak bere burua gai ikusten duelako lan hortaz arduratzeko, txikitatik erakutsi diotelako kontuak eramaten, bere familiarik datorren ezagutza bat da eta. Berak diru sarrerak eta gastuak kontrolatuko ditu, baita zein bezero eta zenbat sartzen diren gimnasioan ere. Maileguei dagokionean, bera arduratuko da pixkanaka dirua bueltatzeaz. Gainera, gimnasioan lesioak dituzten pertsonen lagunduko die, berak oso ondo ulertzen baitu hori, azalean bizi duelako.



Beste enprekin aliantzak sortzerako garaian, harremanetan jarriko dena Naroa izango da. Pertsonen komunikatzeko ahalmena handia du. Gure zerbitzurako ezinbestekoak diren enprekin denbora guztian egongo da kontaktuan, eta etorkizunean beste aliantza bat sortu nahi izan ez gero, bera arduratuko da. Jendearen aurrean aurkezteko ahalmena duelako eta jendea erraz

konbentzitu dezake esaten duenari buruz. Bertan gure zerbitzuari buruz hitz egingo du, eta proiektuan lan egingo duten langileekin harreman estu bat edukiko du. Gainera, enprekin inguruneari buruzko lanketa bat egiten egongo da, guk erabilitako energia ahalik eta gutxien kutsatzeko eta enpresa jasangarri bat sortzeko.

Azkenik, Miren gimnasioan gertatzen diren arazo teknologikoez arduratuko da. Bera egongo da kontaktuan arazo horiekin zerkusia duten enpresa eta pertsonekin, hauek konpontzeko, adibidez, ur arazoak, elektrizitate arazoak, makinekin gertatzen diren arazoak... Horretaz aparte, guk erabiltzen dugun energia aztertuko du eta hasieran jendeari azalduko dio gure gimnasioaren funtzionamendua energiaren alorrean.

